Hariak Kantuz Hariak Estrategiaren I. Jarduketa Planaren barruan sortu den ekimena da, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eta Adinberri Fundazioaren arteko hitzarmen bidez garatuta. Proiektu honen asmo nagusiak dira Hariak Estrategia zabaltzea eta abesbatzen jarduera sustatzea, nahi ez diren bakardadeak aurreikusteko eta kohesio soziala sendotzeko eremu pribilegiatua direlako. Hortaz, ekimen honen premisa nagusia honakoa da: jarduera korala izaera bereziki soziala duen praktika musikala izanik, bertan modu naturalean sortu eta hedatzen direla laguntza eta zaintza sareak. Horrek esan nahi du abesbatzek nahi ez diren bakardadeak lagundu eta aurreikusi ahal izateko askotariko baliabideak zabaltzen eta integratzen dituztela. Hariak Kantuz proiektuak abesbatzekin burututako sentsibilizazio saioak, abesbatza-kontzertu ziklo bat eta abesbatza berrien sorrera sustatzeko baliabideak barne hartzen ditu.

**HARIAK KANTUZ**

Hariak Kantuz es una iniciativa llevada a cabo dentro del I. Plan de Actuación de la Estrategia Hariak. Impulsada mediante convenio entre la Federación de Coros de Gipuzkoa y la Fundación Adinberri, es un proyecto que aspira a difundir la Estrategia Hariak y a promover la actividad coral como un ámbito privilegiado de prevención de las soledades no deseadas y de fortalecimiento de la cohesión social. Por tanto, este proyecto parte de la premisa de que la actividad coral es una práctica musical de carácter eminentemente social en la que se desarrollan naturalmente redes de apoyo y cuidado. Esto permite que los coros puedan desplegar e integrar diversas herramientas de acompañamiento y prevención de las soledades no deseadas. El proyecto Hariak Kantuz incluye sesiones de sensibilización con los coros, un ciclo de conciertos corales y recursos para la creación de nuevos coros.

## *Bizikidetza Hariak*

*Nahikoa naiz jabetu,*
*oraindik ez du atertu.*
*Hari bat, hari bi,*
*ni gabe ez hasi.*

*Kristal pare begientzat*
*ez dezadan ezer galdu:*
*ate itxien atzean*
*inor sartzearen beldur,*
*bakardade bakoitzean*
*mila mundu eta kantu.*

*Nahikoa naiz jabetu,*
*oraindik ez du atertu.*
***Hari bat, hari bi,***
***ni gabe ez hasi.***

*Nahikoa naiz saretu,*
*sentitzen zaitut gertu.*
***Hari bat, hari bi,***
***zu gabe ez naiz ni.***

*Me he dado cuenta,*
*todavía no ha escampado.*
*Un hilo, dos hilos,*
*no empiecen sin mí.*

*Dos lentes en los ojos,*
*para no perderme nada:*
*tras las puertas cerradas*
*miedo a que entre alguien,*
*en cada soledad*
*mil mundos y cantos.*

*Me he dado cuenta,*
*todavía no ha escampado.*
***Un hilo, dos hilos,***
***no empiecen sin mí.***

*Me he entretejido,*
*te siento cerca.*
***Un hilo, dos hilos,***
***no soy yo sin ti.***

Letra: Marta Garcia / Musika: Josu Elberdin

## Partaideak / Programa

Abesbatzak / Coros:
- Hernani Musika Eskolako haur abesbatza (zuz: Amaia Aldalur)
- Lasarteko Alboka Abesbatza (zuz: Montse Latorre)
- Trintxerpeko Illumbe abesbatza (zuz: Josu Elberdin)
- Easo Sinfonieta (zuz: Lucia Arzallus)

Antzerkia / Teatro: Pasaiako Adinkide eta "La motora" taldeak bultzatua, Mafalda Saloioren zuzendaritzapean eta Blanca Caballeroren koordinazioarekin

Aurkezlea / Presentadora: Aia Kruse

**HARIAK KANTUZ**
ETORKIZUNA ERAIKIZ

hariak.adinberri.eus



ADIN BERRI

gipuzkoako abesbatzen federazioa



# BAKARDADEAK SAIHESTEN DITUZTEN AHOTSAK. GIPUZKOA, HARREMANEN LURRALDEA

ELKARTEEN II. TOPAKETA
GABONETAKO III. ABESBATZA-KONTZERTUA

# VOCES QUE PREVIENEN LAS SOLEDADES. GIPUZKOA, TERRITORIO DE RELACIONES

II ENCUENTRO DE ASOCIACIONES
III CONCIERTO CORAL DE NAVIDAD

2024/12/14 - 18:00

# HARIAK ESTRATEGIA

Gipuzkoako Foru Aldundia eta ADINBERRI buru, Hariak azken urteotan garatu den parte-hartze prozesu zabal baten emaitza da, eta bertan parte hartu dute zenbait erakunde publikok zein gizartearen zati handi batek. Gipuzkoako 77 udaletxeko ordezkariek, tokian-tokiko 98 gizarte erakundeek, Osakidetza 6 ESIen bitartez eta 20 enpresa eta berrikuntza zentro egon dira osaketan.

Helburu nagusia: gure lurraldean bizi diren pertsona guztiek bakardade egoerak aurreikusi, heldu eta lagundu ditzaketen pertsonak, egiturak, jarduerak, babesak eta baliabideak eskura izatea. Era berean, gizartean gehiago parte hartzera eta elkartzera bultzatuko dituzten lotura sozial eta afektibo esanguratsuak sustatzea nahi da.

Hariak Estrategiak jauzi handia eman du azken sei hilabeteetan, Europak proiektu berritzaile eta gainerako herrialdeentzako inspiratzaile gisa aitortu baitu. ADINBERRI da KORALE ekimenaren burua. Ekimena Interreg Europe programaren parte da eta nahi ez diren bakardadeak Europako politika publikoen erdigunean egotea du helburu. ADINBERRIrekin, Gipuzkoarekin eta Euskadirekin batera, Austriak, Belgikak, Danimarkak, Irlandak eta Portugalek ere hartzen dute parte proiektu honetan. Horrez gain, Hariak Kantuz-ek "jardunbide ona" aintzatespena jaso du Europako ekimen horren barruan.



# DEKALOGOA

1. **Errespetuz jokatzen dut. Bakardadeak batzuetan aukeratu egiten dira, beste batzuetan ez.** Las soledades a veces se eligen, y otras no. Lo entiendo y lo respeto.
2. **Babesa eta enpatia. Bakarrik sentitzen den pertsona bakoitza axola zait.** La soledad también muestra la salud moral de nuestra sociedad.
3. **Bakardadea emozio bat da. Todas y todos sentimos soledad.** Construyo mi proyecto de vida siendo consciente de ello. Tengo herramientas para hacerle frente.
4. **Elkarren beharra dugu. Harremanak sortu, indartu, eta zaintzen ditut.** Nos necesitamos. Elijo la interdependencia frente al individualismo.
5. **Elkar zaintzen dugu, elkarren euskarri gara.** Familia, comunidad y cuidado: esenciales para superar las soledades.
6. **Auzokidea naiz, bizilagunak gara, komunitate bereko kide.** Somos parte de una comunidad. Promuevo vínculos sociales de afecto, reconocimiento y pertenencia.
7. **Egunerokoaren txikitasunetik, harremanak eta loturak sustatzen ditut.** Facilito relaciones desde la cordialidad y el apoyo mutuo, desde lo cotidiano.
8. **Parte hartzen dut, hiritarra naiz eta konpromisoa azaltzen dut.** Formamos parte de una misma comunidad. Me comprometo y participo.
9. **Ez dut inor atzean geratzerik nahi. Duintasuna, etika eta humanitatea.** Ejes de una sociedad inclusiva donde cabemos todas y todos.
10. **Konpromisoa hartzen dut: nik ere bizikidetza hariak ehuntzen ditut.** Porque la vida es un encuentro con los demás, me comprometo a tejer hilos de convivencia ante la soledad.



# ESTRATEGIA HARIAK

Liderada por la Diputación Foral de Gipuzkoa y ADINBERRI, la Estrategia Hariak es el resultado de un amplio proceso participativo llevado a cabo en los últimos años en colaboración con las instituciones públicas y el conjunto de la sociedad organizada. En su elaboración han participado representantes de 77 ayuntamientos de Gipuzkoa, 98 entidades sociales de carácter local, Osakidetza a través de 6 OSI y 20 empresas y centros de innovación.

Su principal objetivo es que todas las personas en nuestro territorio tengan a su disposición personas, estructuras, actividades, apoyos y herramientas para la prevención, abordaje o acompañamiento de situaciones de soledad, y que cuenten con vínculos sociales y afectivos significativos que lleven a mayores niveles de participación y vinculación social.

La Estrategia Hariak ha dado en los últimos seis meses un gran salto, ya que ha sido reconocida por Europa como un proyecto innovador e inspirador para el resto de países. ADINBERRI lidera la iniciativa KORALE, que forma parte del programa Interreg Europe, que busca que las soledades no deseadas estén en el centro de las políticas públicas en Europa. Junto a ADINBERRI, Gipuzkoa y Euskadi participan en este proyecto Austria, Bélgica, Dinamarca, Irlanda y Portugal. Además, Hariak Kantuz ha sido reconocida como "buena práctica" en el marco de esta iniciativa europea.

